



## IKASLEENTZAKO IKASMATERIALEN PROGRAMA

### DBH 1

2016-2017

Hezkuntza Sailak testuliburuak ikastetxeak erosteko eta gutxienez 2 urtetan berrerabiltzeko kudeaketa plan bat prestatu du.

Plan horretan sartzen diren ikasleek, datozen ikasturteetan ikastetxeak DBHko 1. eta 2. mailetarako hautaturiko testuliburuak (Matematika, Euskara- Ulermena, Lengua Castellana y Literatura, Biologia eta Geologia, Geografia eta Historia, Inglés- Student´s book) eskuratu ahal izango dituzte.

Berrerabil daitezkeen testuliburuak eta curriculum-materialak **Hezkuntza Administrazioarenak izango dira**, eta ikasturtea amaitutakoan ikastetxean bertan geratuko dira hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko, ongi zaindu direla eta hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko moduan daudela egiaztatu ondoren; betiere ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendurako arautegiak ezartzen duena aintzakotzat hartuta. Ikasturte bukaeran liburuak egoera onean itzuliko dira.

Ikasle bakoitzak **236€** jarri beharko du eta kopuru horretatik **150€ berreskuratuko ditu 2. DBH bukatzean**, baldin eta liburu guztiak egoera onean itzultzen baditu. (Ikus behean funtzionamendu eta mantentze arautegia).

Fidantzaren sarrera egiteko kontuaren datuak:

Kontua	ES82 2095 0611 05 1060388815
Kontzeptua	<b>IKASLEAREN IZEN ABIZENAK</b> + DBH1 liburuak
Kopurua	236€

### UKO EGITEAK eta BATERAEZINTASUNAK.

Ikasturte batean programa honetan parte hartu nahi ez duen guraso edo tutore legalak, ikastetxeari jakinarazi beharko dio.

Programan parte hartzeari uko egin dion ikasleak **bestelako diru-laguntzak eskatzeko eskubidea du**. Mailegu programa honetan parte hartzeak, Eusko Jaurlaritzaren beste diru-laguntzak jasotzeko aukera izatea (jangela, garraioa...) **ez du eragozten**. Agindu honetan araututako programan parte hartzea bateragarria da programa horrek helburu dituen materialak eskuratzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila ez den beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako edozein laguntza jasotzearekin, baldin eta laguntza horiek guztiak batuta ez badute gainditzen ikasleak ordaindu beharrekoa.

### FUNTZIONAMENDU eta ZAINZA ARAUTEGIA:

#### IKASTURTE BUKAERAN LIBURUEN ITZULKETA

1. Liburuak ondo **identifikatuta** egongo dira beren etiketan ikaslearen izen-abizenak adieraziz.
2. Liburuak **egoera onean** egon behar dute: ez daudela puskatuta, azpimarratuta edo margotuta, eta ez dutela mantxarik egiaztatuko da.
3. **Onartzen ez diren liburuak** beren jabeei itzuliko zaizkie eta dagokion diru kopurua jarritako fidantzatik deskontatuko da.
4. Liburu bilketa: ikasleak irakasgai guztiak gainditzean dituen jasoko dira. Mailegu programaren barruan dagoen irakasgairen bat hurrengo ikasturterako geratuko balitz, urriko edo maiatzako azterketak prestatzeko materiala emango zaio ikasleari.

#### FIDANTZAREN ITZULKETA

**DBHko bi ikasturteetan zehar** erabilitako materialaren egoera ikusita aurreko puntuetan azaltzen diren baldintzak betetzen dituzten liburuei dagozkien fidantzak itzuliko dira 2018ko uztailaren bukaera aldean.

**Matrikula dokumentuekin batera uko egitearen inprimakia edo 236€en diru sarreraren egiaztagiria Idazkaritzan entregatuko da.**